



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 22a

Vitoria-Gasteiz, 22 de julio de 2025

Lehendakaritza

Gobernu Kontseiluak "Lan Onari" goraipamena Carmelo Urzari ematea erabaki du

Gobernu Kontseiluak, Imanol Pradales Lehendakariak proposatuta, Carmelo Urzari "Lan Onari" goraipamena ematea onartu du gaur, esparru akademikoan egindako lanagatik eta euskal kultura atzerrian zabaltzen laguntzeagatik.

Carmelo Urza Larrauri (Sestao, 1948) Filologia Hispanikoan doktorea da Renoko Unibertsitatean, eta, nahiz eta oso gaztea zela Estatu Batuetara bizitzera joan, beti nabarmendu da bere euskal sustraiei eusteagatik eta Euskadiren eta Estatu Batuen artean harremanak estutzeko egindako lanagatik. Lan horren adierazle nagusia 1982an USAC (University Studies Abroad Consortium) sortzeko bultzada izan zen. Unibertsitate-partzuergo horren helburua da mendebaldeko Amerikako eta Euskal Herriko ikasleen artean zubiak eraikitzea, eta, EHUrekin egindako hitzarmen baten bidez, partzuergo horrek Euskadin egonaldiak antolatzen ditu hizkuntza eta kultura, artea, ekonomia edo enpresa-administrazioa ikastera hurbiltzen diren Ipar Amerikako ikasle-taldeentzat.

Partzuergoaren sorreratik, Estatu Batuetako eta hogeitik gora herrialdetako milaka unibertsitate-ikaslek egonaldiak egin dituzte Euskal Herrian, eta egonaldi horietan, ezagutza akademikoak eskuratzeaz gain, euskal kultura ezagutzeko aukera ere izan dute. Era berean, Ipar Amerikako ehun irakaslek baino gehiagok beren irakasgaiak eman ahal izan dituzte, partzuergo horrek antolatutako euskal programetan

Lan Onari goraipamena emateko ekitaldia Boiseko 2025 Jaialdian izango da.

Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna

Eusko Jaurlaritzak 5 milioi euro bideratuko ditu euskarazko adimen artifizialaren garapena Euskorpus proiektuaren bidez sustatzeko

- **Eusko Jaurlaritzak indartu egin du euskarazko adimen artifizialaren aldeko apustua, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren baterako ekarpenarekin.**
- **Euskorpus proiektuaren bidez, euskarazko kalitatezko corpus digitala garatu ahal izango da, hizkuntzaren teknologietan integratzen lagunduko du eta euskal ehun ekonomiko eta industrialia dinamizatuko du.**
- **Euskorpusek, guztira, 10,55 milioi euroko finantzaketa izango du 2025-2027 aldirako.**

Euskorpora elkarteari gehienez ere bost milioi euroko dirulaguntza zuzena ematea onartu du gaur Gobernu Kontseiluak, Euskorpus proiektu estrategikoaren baitan. Ekarpen hori Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailak eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak kudeatzen dute, eta Eusko Jaurlaritzak berrikuntzarekin, garapen teknologikoarekin eta euskarak ingurune digitalean duen presentzia aktiboarekin duen konpromisoa indartzen du. Ekimen honetan Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailak ere aktiboki parte hartuko du, hizkuntzaren teknologiako ikerketa bultzatuta eta garatuta.

Euskorpus proiektua ekimen publiko-pribatua da, eta Euskorpora du buru. Irabazi-asmorik gabeko elkarte hori 2024ko urtarrilean sortu zen, teknologia digitalei aplikatu beharreko euskarazko hizkuntza-datuak kudeatzeko eta garatzeko. Helburu nagusia da euskararen etorkizuna bermatzea gero eta digitalizatuagoa den gizartean eta, horretarako, euskarazko testuen corpus digitala metodikoki sortzea eta kode irekiko adimen artifizialeko ereduak garatzea.

Teknologia digitalen bilakaera azkarra hizkuntza nagusien baldintza beretan lortu ezin duten hizkuntzek desagertze digitalari aurre egiteko arrisku larria dute. Hori dela eta, euskarak garapenerako funtsezko tresna izan behar du, agertoki digital eta globalizatuan, eta, beraz, euskarazko corpus digital hori sortzen lagundu behar da, hura kontserbatzen, mantentzen eta industria-sarean zein gizarte-ehunean eragina sortzen laguntzeko, hizkuntza-baliabide digitalen Europako esparrura konektatuta.

Euskadiren behar estrategikoetatik abiatuta, Euskorporak lan egingo du sektore desberdinek (Justizia, Hezkuntza, Osasuna, e-Administrazioa, Segurtasuna, Elikadura, Industria Adimenduna, Gizartea, etab.) eskatzen dituzten euskarazko hizketa- eta lengoiaia-teknologietan oinarritutako soluzioak/aplikazioak identifikatzeko.

Inbertsio horren bidez, Eusko Jaurlaritzak euskarazko industria teknologikoa sustatu nahi du, hizkuntzaren teknologiei lotutako sektore estrategikoetan berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatuta.

Euskorpus: euskararen etorkizun digitalaren aldeko apustu estrategikoa

Euskorpus proiektuak hiru fase izango ditu:

1. Plangintza eta definizioa: bulego teknikoa martxan jartzea, eta corpus mota eta sektore estrategikoak definitzea.
2. Garapena: hizkuntza-corpusak biltzea, kode irekiko oinarrizko ereduak garatzea eta azpiegitura teknologikoak sortzea.
3. Transferentzia eta ustiapena: corpusak eta ereduak merkatu digitalean integratzea, enpresek, erakundeek eta herritarrek erabil ditzaten erraztuta.

Eusko Jaurlaritzaren AROA Marko Estrategikoan atzemandako behar honi erantzuten dio proiektuak: euskara bezalako hizkuntza gutxituentzat arriskutsua da eremu teknologikoan irmoki jarduten ez bada. Euskorpus proiektua, alde horretatik, funtsezko tresna da hizkuntza-berdintasuna ziurtatzeko adimen artifiziala eta ingurune digitala erabiltzean.

Ekimen horren bidez, Eusko Jaurlaritzak kultura- eta hizkuntza-aniztasunarekiko duen konpromisoa berresten du, Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren helburuekin lerrokatuta eta euskara kultur ondare immaterial gisa indartzen lagunduta.

Segurtasuna

Gobernu Kontseiluak zazpi euskal enpresen kanpoko larrialdietarako planak onartu ditu

- **Babes zibileko plan horien helburua da herritarrengan kanpoko eragina duten larrialdiei ahalik eta erantzun onena ematea**

Gobernu Kontseiluak ACIDEKA SA (Bilbo), HA ILARDUYA SLU (Zornotza), ELECTROQUIMICA DE HERNANI SA, KEM ONE SLU (Hernani), BEFESA ZINC OXIDO SAU (Sondika), BEFESA ZINC OXIDO SAU (Zornotza) eta AURUBIS BERANGO SL enpresen kanpoko larrialdietarako planak onartu ditu gaur.

Kanpoko larrialdietarako planak babes zibileko plan bereziak dira, eta instalazio horietan gerta daitezkeen eta herritarrei eragin ahal dieten istripu-hipotesi jakin batzuen aurrean erantzuna artikulatzea dute helburu.

Horrelako planak SEVESO izeneko Europako zuzentarauen barruan daude, eta enpresek beren barneko larrialdi-planean aurreikusi dituzten neurriak osatzen dituzte.

Aipatutako planak egiteko prozedurak erreferentziako araudian ezarritakoari jarraitu dio, hau da, jendaurrean jarri ziren eta Euskadiko Babes Zibileko Batzordeak aldeko txostena eman zien 2023ko abenduaren 17ko ohiko bilkuran, eta, era berean, Babes Zibileko Kontseilu Nazionalaren aldeko txostena jaso zuten.

Etxebizitza eta Hiri Agenda

Eusko Jaurlaritzak ofizialki jaso du Zumarragako Udalak zuzkidura-bizitokiak eraikitze doan lagatako lurzorua

- **Lagapen-ekitaldi instituzionala uztailaren 23an, asteazkena, 11:30ean, egingo da Kalebarren kaleko 30eko forjen fabrika zaharrear, Jaurlaritzak babestutako etxebizitzaren beste sustapen bat eraikiko duen tokian**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Zumarragako Udalak Faustino Orbegozo fundazioaren Z-5.6 esparruan dauden bi finka doan lagatzea, titulartasun publikoko zuzkidura-bizitokiak eraikitzea bideratuta.

Jarduketa hau kokatzen da Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak, udalekin lankidetzan, errenta-ahalmen txikiko pertsonen zuzendutako etxebizitza-eskaintza handitzeko hartutako konpromisoaren barruan. Lagatako lurzorua barne hartzen ditu 861 finkan dagoen geriatiko zaharra eta erantsitako beste finka bat (870 finka), eta bidea emango du etxebizitza-politika publikoak indartuko dituzten zuzkidura-bizitoki berriak garatzeko.

Lankidetzan instituzional hori ikusarazteko, Eusko Jaurlaritzak eta Zumarragako Udalak lagapen-ekitaldi bat egingo dute uztailaren 23an, asteazkena, 11:30ean, forjen fabrika zaharrear, Kalebarren kaleko 30ean, Jaurlaritzak etxebizitza babestuaren beste sustapen bat eraikiko duen lekuan.

Jarduketa bat dator 2024-2028 XIII. Legealdiko Gobernu Programaren 18. konpromisoko laugarren ekimenarekin. Ekimen horrek helburu du gazteei bizi-proiektu berri bat hasten laguntzea, etxebizitza eskuratzea erraztuta.

Gaur onartutako beste akordio batzuk

- **Amurrio:** Amurrioko Udalarentzako zuzeneko dirulaguntza bat erregulatzen duen akordioaren bigarren aldaketa onartzea, Goikolarra auzoan hiri-berronertzeko jarduketetara bideratuta. Dirulaguntza 3,4 milioi eurokoa da, eta egikaritze-epeak 2026ra arte egokitu dira, 96 etxebizitza birgaitzeko obrak amaitzea, espazio publikoa hobetzea eta hurbiltasuna kudeatzeko bulegoa abian jartzea errazteko.
- **Dima:** “Oba Goikoa auzoan luiziek erasandako hornidura-sarea hobetzeko proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideak premiaz okupatu beharrezkotzat deklaratzeko. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak bultzatutako proiektuari esker, horniduraren jarraitutasuna bermatu ahal izango da, Obako Atxa mendiaren hegalean izandako luizi batek eragindako kalteen ondoren.
- **Desjabetzearen ondoriozko kalte-ordainak:** Euskal Autonomia Erkidegoko Nahitaezko Desjabetzeko epaimahaietako kideentzako konpentsazio ekonomikoak eguneratzea. Horiek ebatzitzeko espediente bakoitzeko 100 euro jasotzera pasatuko dira, joan-etorri dagozkien kalte-ordainez gainera.

Osasuna

Eusko Jaurlaritzak 5,8 milioi euro bideratuko ditu osasun arloko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako

- **Osasun Sailak abian jarri du osasun-laguntza eta bizi-kalitatea hobetzeko proiektuetarako laguntzen deialdia**

Eusko Jaurlaritzak gaur onartu du osasun arloko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzen 2025. urteko deialdia; 5,8 milioi euro bideratuko ditu. Hala, osasun-laguntza eta bizi-kalitatea hobetzeko proiektuetarako laguntzen deialdi hau jarri du abian Osasun Sailak.

Osasun Sailarentzat I+G+b arloko jarduerak bultzatzea ildo estrategikoetako bat da eta, horretarako, ikerketa sustatzen du osasun-sistemaren beharrei erantzuteko eta lankidetzak bultzatzeko, osasun-sistemaren barruan, baita beste erakunde batzuekin ere, I+G+b arloko proiektuak sortzeko eta elkarrekin garatzeko, betiere pertsonen onurarako.

Hori dela eta, laguntza hauek zabaldu egin daitezke, eta helburua dute pertsonen osasuna eta osasun-sistemaren jarduna hobetzen laguntzea, baita osasun-laguntza eta bizi-kalitatea hobetuko dituzten ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak garatzen laguntzea ere.

Zehazki, hiru laguntza-ildo dira:

- **Osasun arloko ikerketa-jarduera sustatzea I+G proiektuen bidez**, helburu hartuta osasun-sistemaren ahalmena indartzea eta osasun-sistemaren eta gizartearen eskaerei hobeto erantzuteko behar den ezagutza sortzen eta integratzen laguntzea.
- **Osasun arloko ikerketa-jarduera areagotzea**, jarduera kliniko-asistentziala duten langileek egindako I+Gko proiektuen edo jardueren bidez, I+Gko jardueretarako dedikazioa areagotzeko eta Euskadiko osasun-sisteman ikerketaren kultura indartzeko.
- **Osasun arloko ikerketa estrategikoa indartzea**, Euskadiko lidergo sanitariotik, lankidetzatik eta gaitasun zientifiko-teknologikoen aprobetxamendutik sortutako I+G proiektuen bidez, horiek ahalbidetu egiten baitute produktu, prozesu edo zerbitzu berrien balorizazioan eta garapenean aurrera egitea, RIS3 Euskadi-ZTBP 2030 strategiaren ildotik

Ikerketaren eta berrikuntzaren sustapenak oinarri ditu Osasun arloko ikerketa eta berrikuntza estrategia 2022-2025 eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana Euskadi 2030 (ZTBP 2030). Horiek RIS3 Euskadi espezializazio adimenduneko estrategian dute oinarria, eta horretan osasun pertsonalizatua lehentasunezko hiru arloetako bat da.

Ildo horretan, laguntzen deialdiak, alde batetik, 3.150.000 € bideratuko ditu osasun arloko ikerketa-jarduera sustatzeko eta osasun-arloko ikerketa-jarduera areagotzeko

lerroko proiektuetarako, eta 2.650.000 €, osasunaren arloko ikerketa estrategikoa indartzeko lerroetako proiektuetarako.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarean (ZTBES) dauden pertsonak eta ikerlari-taldeek hilabeteko epean aurkeztu ahal izango dute eskabidea, agindu hau EHAAan argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik hasita.

Mugikortasun Jasangarria

Eusko Jaurlaritzak dirulaguntzak emango ditu garraioaren sektorean bigarren belaunaldiko takografo adimendunak instalatzeko

Gobernu Kontseiluak Susana García Chueca Mugikortasun Jasangarriaren sailburuaren agindua baimendu du; horren bidez, laguntza-programa baterako deialdia egin eta arautzen da, 2025eko ekitaldian Euskadiko salgaien eta pertsonen errepideko garraio publikoaren sektorean teknologia berrien eta segurtasun-sistemak erosi eta ezartzeko. Ibilgailuak lokalizatzeko eta kudeatzeko sistemak, segurtasuna eta efizientzia ezartzearen helburua da zerbitzua ematean segurtasun, kalitate, gardentasun eta arintasun handiagoa lortzea; hori positiboa da bai garraio-enpresentzat, bai erabiltzaileentzat.

2025 honetan, Mugikortasun Jasangarriaren Sailak bigarren belaunaldiko takografo adimendunak instalatzea diruz laguntzeko programetan txertatu du, bide-segurtasuna handitzeko, gidarien lan-baldintzak hobetzeko eta lehia leiala babesteko. Gainera, Europako araudiaren arabera, ezinbestekoa da ibilgailuak matrikulatuta ez dauden beste estatu kide batean dabiltzanek sistema hori edukitzea urtarrilaren 1etik aurrera, edo sistema hori eguneratzea abuztuaren 20tik aurrera, lehen belaunaldiko takografo adimenduna duten ibilgailuen kasuan.

Halaber, laguntzak jasoko dituzte flotak lokalizatzeko eta kudeatzeko sistemek; baita segurtasun-elementuek, hala nola kamioientzako segurtasun-sistemek, suteak hautemateko eta autoitzaletzeko sistemek, eta sentsoreen eta radarren bidez talkak prebenitzea ahalbidetzen duten teknologiek ere. Halaber, diruz lagunduko dira eraginkortasunez gidatzeko eta erregai-kontsumoa murrizteko sistemak, hala nola gurutzaldi-abiaduraren kontrolatzaileak.

Dirulaguntza horiek 2005ean hasitako programa batekoak dira, eta izapideak erraztu egin dira orain. Datozen bi hilabeteetan eskatu ahal izango dira, eta dirulaguntza jaso dezakeen kategoria bakoitzeko, gehienez, 5.000 euro jasoko dira –onuradun bakoitzak eskura dituen 4 laguntzetatik bat edo gehiago aukeratu ahal izango ditu–. Aurrekontua 110.000 eurokoa da.

Mugikortasun Jasangarria

Eusko Jaurlaritzak Euskotrenen 48 langile baimendu ditu Donostiako lurpeko pasabidea martxan jartzeko

Eusko Jaurlaritzak, Susana García Chueca Mugikortasun Jasangarriaren sailburuak hala eskatuta, Euskotrenen 48 langile kontratatzea baimendu du. Langile horiek beharrezkoak izango dira Donostian Topoaren lurpeko pasabidea eta Altza eta Galtzaraborda arteko saihesbidea martxan jartzeko. Tarte horietan trenak 2026an jarriko dira martxan, eta maiztasunak hobetzea eta Donostialdean trenez hiriburuan aldaketarik egin gabe bidaiatzea lortuko da.

Langileek prestakuntza jasoko dute Euskotrenen eta Euskal Trenbide Sarearen (ETS) trenbide-sistemekin ohitzeko, bai eta sozietate eta erakunde publikoak material mugikorrean eta azpiegituran ezartzen hasiko diren segurtasun-sistema berriarekin ohitzeko ere, European Rail Traffic Management System (ERTMS); horrek Europako herrialdeetan tren-operazioan segurtasun-ereduen interoperabilitatea ahalbidetzen du.

Donostiako Topoaren lurpeko pasabideak lur azpiko hiru geltoki berri izango ditu Gipuzkoako hiriburuan, bide bikoitzeko trazadurarekin. Hala, Amarako erdiguneko geltokian egun dagoen zaku-hondoa kenduko da; horrek sareko puntu horretan trenak 'errobotatzera' behartzen zuen, tren-funtzionamendua oztopatu eta bidaiariek garraioz aldatu behar zuten. Era berean, azpiegitura berriak lur gaineko lurak libratuko ditu, Etxebizitza Sailak hiri-erdigunean etxebizitza eskuragarriak sustatu ahal izateko.

Bestalde, Altza eta Galtzaraborda arteko bide bikoitzeko lurpeko saihesbideak Pasai Antxon lurpeko geltoki berri bat izango du, eta Altzako zaku-hondoa kenduko du.

Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza

Eusko Jaurlaritzak 19 M€-ko aurrekontua onartu du doktoratu aurreko eta ondoko laguntzetarako

Euskadiko ikerketa-karrerak bultzada handia jasoko du Gobernu Kontseiluak gaur onartu dituen laguntza-deialdi berriei esker. Deialdi horiek doktore ez diren ikertzaileak (predoc) eta doktoreak (postdoc) prestatzeko programetara bideratuko dira 2025-2026 ikasturterako, eta 19 M€-ko aurrekontu-zuzkidura izango dute, hau da, ia %14ko igoera iazkoaren aldean.

Laguntza horiek onuradunen baldintza ekonomikoak eta kontratu-baldintzak hobetzen lagunduko dute, eta, alde horretatik, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailak Euskadin talentu zientifikoa sendotzeko egiten duen apustu irmoa indartzen dute.

1980tik indarrean dauden deialdi berri hauek indartu egiten dute Sailak duen konpromisoa ibilbide profesional sendoa, nazioartekoa eta ikertzaileentzat itzulera bokazioa duena garatzeko.

2026. urterako aurrekontu-ahalegina nabarmena da: guztira 19 milioi eurokoa, hau da, aurreko urteko aurrekontua baino % 13,66 handiagoa, (16,8 milioi eurokoa).

525 kontratu ikertzaileentzat

Deialdien arabera, 525 kontratu emango zaizkie ikertzaileei. Doktoratu aurreko 414 kontratu eta doktoratu ondoko 111 kontratu dira guztira, eta horietan langile berriak eta berritzeak sartzen dira.

Ildo horretan, nabarmentzekoa da doktoratu osteko programaren aurrekontuak izan duen % 35eko hazkundera, soldata baldintzak hobetzera eta itzuleraren ondoren kontratuen iraupena luzatzera bideratuta dagoena.

Deialdien oinarri berriek % 2,5eko soldata-igoera ezartzen dute ikertzaile guztientzat. Errefortzua are handiagoa da doktoretza aurreko ibilbidearen hasierako fasean dauden ikertzaileentzat: % 4ko soldata-igoera dute lehen eta bigarren urteetan, eta % 2,5eko kontratuaren hirugarren eta laugarren urteetan. Doktoratu ondoko langileek, bestalde, % 2,5eko igoera izango dute beren kontratuaren urte guztietan.

Nazioarteko formazioa

Sailak arreta berezia jarri du nazioarteko prestakuntzan, Euskadira itzultzea bermatuta. Doktoratu aurreko deialdia Egonlabur nazioarteko mugikortasun programarekin osatzen da. Programa horrek lau eta sei hilabete bitarteko egonaldiak finantzatzen ditu atzerrian, doktoretza-tesian nazioarteko aipamena lortzea erraztuz. Gainera, doktoratu ondoko deialdiak urtebeteko luzapena izango du nazioarteko egonalditik itzuli ondoren, hau da, bi urtetik hiru urtera. Neurri honen helburua da ikertzaileen kontsolidazioa

profesionalerako aukerak indartzea Zientziaren Euskal Sistemaren barruan, lkerbasquerekin, unibertsitateekin eta ikerketa zentroekin sinergiak sustatuz.

Bestalde, eraginkortasunera eta administrazio-zamaren murrizketara bideratutako berrikuntza gisa, deialdi berriak zuzenean jasotzen du nazioarteko mugikortasunaren finantzaketa, doktoratu ondoko kontratuaren lehen bi urteetan. Horrek Ikermugi+ laguntza gehigarriak eskatzeko beharra ezabatzen du, prozesu burokratikoak nabarmen sinplifikatuz.

Hobekuntza horiek guztiak Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailak euskal ikerketa-karrera kalitatezkoaren alde egindako apustuaren ondorio dira. Karrera horrek nazioarteko dimentsio indartsua eta tokiko errotze sendoa ditu, eta ekosistema zientifiko sendoa, lehiakorra eta, eta batez ere, pertsonen garapenean eta ongizatean oinarritzen dena sustatzen du.

Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak eta Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak lankidetzaren hitzarmena sinatu dute Next Generation EU funtsetatik datozen turismo-sektorerako Konpetentzia Digitalak prestakuntza-programa garatzeko

Gobernu Kontseiluan aurkeztu da Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren eta Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren arteko lankidetzaren hitzarmena. Horren bidez, Next Generation EU funtsetatik datozen turismo-sektorerako Konpetentzia Digitalak prestakuntza-programa garatuko da.

Hitzarmen horren bidez, Euskadiko turismo-sektorerako konpetentzia digitalen programako prestakuntza-jarduerak garatu eta egikaritu nahi dira, Lanbidek kudeatutako dirulaguntzen deialdi baten bidez. Prestakuntza-ekintzak diseinatzeaz eta zentro laguntzaileen bidez ikastaro horiek emateaz arduratuko da Lanbide.

Programa hau 1.982.342,08 eurokoa da eta prestakuntza-ikastaroak gutxienez 150 ordukoak izango dira. Honako hauek dira: Gizarte Segurantzaren sektore turistikoko modalitateetan altan emanda dauden langileentzat, sektore turistikoan prestakuntza-edo praktika-kontratua duten gazteentzat, sektore turistikoko ETEentzat eta sektore turistikoko langabeentzat.

Jarraipen-batzorde bat eratuko da hitzarmenaren jarraipena eta kontrola egiteko, eta bertan parte hartuko dute Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak eta Lanbidek.

Programa 2026ko maiatzaren 31ra arte egingo da, eta 2026ko ekainaren 30era arte luzatzeko aukera egongo da.

Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

Bizkaidendak Elkarteari zuzeneko dirulaguntza ematea onartu da, Berriro proiektua merkataritzarako fidelizazio-tresna garatzeko

Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Bizkaidendak Elkarteari 108.900 euroko zuzeneko dirulaguntza ematea onartu du Gobernu Kontseiluak. Dirulaguntza horren helburua da Berriro proiektua garatzea, tokiko merkataritzarako fidelizazio digital integraleko tresna, fidelizazio-programak modu autonomoan kudeatu ahal izan ditzan, behar espezifikoetara egokituta eta merkataritza-inpaktua maximizatuta.

Gero eta lehiakorragoa den ingurunean, bezeroak fidelizatzea funtsezko faktore bihurtu da tokiko merkataritzaren iraunkortasunerako. Fidelizazioaren bidez, erosketak errepikatzea areagotzen da, eta, gainera, tokiko merkataritzaren eta bezeroen arteko lotura indartzen du, hala konfiantzazko harremanak eta epe luzeko konpromiso handiagoa sortuta.

Ilido horretan, Bizkaidendak Elkarteak kudeatzen duen Berriro izeneko tokiko merkataritza suspertzeko proiektu honek tokiko merkataritzak aurre egin behar dien erronka ugari erantzuten die, bereziki saltoki handiei eta merkataritza-kateei dagokienez, fidelizazio-programa aurreratuak baitituzte (txartel eta app pertsonalizatuak) eta lehia-desabantailan uzten baititu saltoki txikiak.

Bezeroei dagokienez, aplikazioan alta ematen dutenean, plataforman dauden saltoki guztietara sartu ahal izango da, eta ez da beharrezkoa izango haietako bakoitzean banaka erregistratzea; horrez gain, haien puntuak kontsultatu, eskaintzak jaso eta sustapenak kontsultatu ahal izango da. Gainera, tresna erabat integratuta dago Euskaldendak ekosisteman (Bizkaidendak kide den Euskadiko merkataria, ostalari eta zerbitzu-enpresen elkarten konfederazioa) eta udaletako NIREetan. Hori dela eta, tokiko saltokiak elkarrekin konektatutako sare digital baten parte izango dira, eta horrek ikusgarritasun handiagoa emango die haien fidelizazio-programei eta sustapenei.

Hauek dira BERRIRO proiektuaren helburuak:

- 1- Bezeroen fidelitatea handitzea: bezeroak maiz itzultzea lortzea, erosketak errepikatzea sustatuta, sari-sistema erakargarri eta pertsonalizatuaren bidez.
- 2- Tokiko merkataritza ahalduntzea: marka handiekin lehiatzea, teknologian inbertsio eskuraezinak egin beharrik gabe. Merkataria bakoitzak bere fidelizazio-programa sortu ahal izango du, bere beharretara eta bezeroen ohituretara egokituta.
- 3- Merkatarien eta bezeroen arteko komunikazioa hobetzea: merkatariek jakinarazpenak bidali ahal izango dizkiete bezeroei, beren onurak, pilotutako puntuak eta sustapen aktiboak gogoraraziz.
- 4- Baliabideak optimizatzea eta prozesuak erraztea: saltokiei denbora eta ahalegina aurrezteko aukera ematen die, bezeroen eta sustapenen kudeaketaren eraginkortasuna

hobetuta, puntuak eta erosketak erregistratuta, txartel fisikoak ezabatuta eta sustapen eta deskontuetarako sarbidea erraztuta.

Lehendakaritza

El Consejo de Gobierno acuerda conceder la distinción ‘Lan Onari’ a Carmelo Urza

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy, a propuesta del Lehendakari Imanol Pradales, conceder la distinción ‘Lan Onari’ a Carmelo Urza, en reconocimiento a su labor en el ámbito académico y por su contribución a la divulgación de la cultura vasca en el exterior.

Carmelo Urza Larrauri (Sestao, 1948) es Doctor en Filología Hispánica por la Universidad de Reno y, aunque se trasladó muy joven a vivir a Estados Unidos, ha destacado siempre por mantener sus raíces vascas y trabajar para estrechar lazos entre Euskadi y los Estados Unidos. El principal exponente de ese trabajo fue su impulso para crear en 1982 USAC (University Studies Abroad Consortium), un consorcio universitario cuyo objetivo es tender puentes entre estudiantes del oeste americano y Euskal Herria y que, a través de un convenio con EHU, organiza estancias para grupos de estudiantes norteamericanos que se acercan a Euskadi a estudiar lengua y cultura, arte, economía, o administración de empresas.

Desde su creación, miles de estudiantes universitarios de los Estados Unidos y de más de una veintena de países han realizado estancias en Euskadi en las que, además de adquirir conocimientos académicos, han tenido la oportunidad de conocer la cultura vasca. Asimismo, más de un centenar de profesoras y profesores norteamericanos han impartido sus materias en los programas vascos organizados por este consorcio.

La entrega de la distinción ‘Lan Onari’ tendrá lugar durante el Jaialdi 2025 de Boise.

Industria, Transición Energética y Sostenibilidad

El Gobierno Vasco destina 5 millones de euros para impulsar el desarrollo de la inteligencia artificial en euskera mediante el proyecto “Euskorpus”

- **El Gobierno Vasco refuerza su apuesta por la inteligencia artificial en euskera con una aportación conjunta de los Departamentos de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad; y de Cultura y Política Lingüística**
- **El proyecto Euskorpus permitirá desarrollar un corpus digital de calidad en euskera, facilitará su integración en las tecnologías de la lengua y dinamizará el tejido económico e industrial vasco**
- **Euskorpus contará con una financiación total de 10,55 millones de euros para el periodo 2025-2027**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la concesión de una subvención directa por un importe máximo de cinco millones de euros a la asociación Euskorpora, en el marco del proyecto estratégico Euskorpus. Esta aportación, gestionada por los Departamentos de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad; y de Cultura y Política Lingüística refuerza el compromiso del Ejecutivo vasco con la innovación, el desarrollo tecnológico y la presencia activa del euskera en el entorno digital. En esta iniciativa también participa activamente el Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación.

El proyecto Euskorpus es una iniciativa público-privada liderada por Euskorpora, asociación sin ánimo de lucro constituida en enero de 2024 para gestionar y desarrollar datos lingüísticos en euskera aplicables a tecnologías digitales. Su objetivo principal es garantizar el futuro del euskera en una sociedad cada vez más digitalizada, mediante la creación metódica de un corpus digital de textos en euskera y el desarrollo de modelos de inteligencia artificial de código abierto.

Las lenguas que no pueden acceder a la rápida evolución de las tecnologías digitales en igualdad de condiciones con los idiomas mayoritarios corren un serio peligro de enfrentarse a una extinción digital. Por ello, el euskera debe ser una herramienta clave para el desarrollo, en un escenario digital y globalizado, por lo que hay que contribuir a la creación de ese corpus digital en euskera, que contribuya a su conservación, mantenimiento y a la generación de impacto tanto en el tejido industrial como social, conectado al marco europeo de recursos.

Partiendo de unas necesidades estratégicas de País, Euskorpora trabajará para identificar las soluciones/aplicaciones basadas en tecnologías del habla y lenguaje en euskera demandadas por los distintos sectores (Justicia, Educación, Salud, e-Administración, Seguridad, Alimentación, Industria Inteligente, Sociedad, etc.).

Con esta inversión, el Gobierno Vasco busca fomentar la industria tecnológica en euskera, impulsando la innovación y la competitividad en sectores estratégicos vinculados a las tecnologías del lenguaje.

Euskorpus: una apuesta estratégica por el futuro digital del euskera

El proyecto Euskorpus se desarrollará en tres fases:

4. Planificación y definición: puesta en marcha de la oficina técnica, definición del tipo de corpus y sectores estratégicos.
5. Desarrollo: recopilación de corpus lingüísticos, desarrollo de modelos base en código abierto y creación de infraestructuras tecnológicas.
6. Transferencia y explotación: integración de los corpus y modelos en el mercado digital, facilitando su uso por empresas, instituciones y ciudadanía.

Esta estrategia responde a una necesidad detectada en el Marco Estratégico AROA del Gobierno Vasco, que advierte sobre el riesgo para lenguas minorizadas como el euskera si no se actúa decididamente en el ámbito tecnológico. El proyecto Euskorpus es, en este sentido, una herramienta clave para asegurar la igualdad lingüística en el acceso a la inteligencia artificial y al entorno digital.

Con esta iniciativa, el Gobierno Vasco consolida su compromiso con la diversidad cultural y lingüística, alineándose con los objetivos de la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias y contribuyendo al fortalecimiento del euskera como patrimonio cultural inmaterial.

Seguridad

El Consejo de Gobierno aprueba los planes de emergencia exterior de siete empresas vascas

- **El objetivo de estos planes de protección civil es articular la mejor respuesta frente a emergencias cuya repercusión conlleve una afección exterior a la población**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy los planes de Emergencia Exterior de las empresas ACIDEKA SA (Bilbao), HA ILARDUYA SLU (Zornotza), ELECTROQUIMICA DE HERNANI SA, KEM ONE SLU (Hernani), BEFESA ZINC OXIDO SAU (Sondika), BEFESA ZINC OXIDO SAU (Zornotza) y AURUBIS BERANGO SL.

Los planes de emergencia exterior son planes de protección civil de carácter especial y tienen como finalidad articular la respuesta externa ante determinadas hipótesis accidentales que puedan producirse en dichas instalaciones con la consiguiente afección exterior a la población.

Este tipo de planes, encuadrados en las directivas europeas denominadas coloquialmente SEVESO, complementan las medidas que las empresas han previsto en su plan de emergencia interior.

El procedimiento de elaboración de los planes citados ha seguido lo estipulado en la normativa de referencia, es decir, fueron sometidos a información pública e informados favorablemente por la Comisión de Protección Civil de Euskadi en sesión ordinaria del 17 de diciembre de 2023 y recibieron, igualmente, el informe favorable del Consejo Nacional de Protección Civil.

Vivienda y Agenda Urbana

El Gobierno Vasco recibe oficialmente el suelo cedido de forma gratuita por el Ayuntamiento de Zumarraga para la construcción de alojamientos dotacionales

- **El acto institucional de cesión se celebrará el miércoles 23 de julio a las 11.30 horas en la antigua fábrica de Forjas de la Calle Kalebarren 30, donde el Ejecutivo levantará otra promoción de vivienda protegida**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la aceptación de la cesión gratuita por parte del Ayuntamiento de Zumarraga de dos fincas situadas en el ámbito Faustino Orbeagoz Fundazioa (Z-5.6), con destino a la construcción de alojamientos dotacionales de titularidad pública.

Esta actuación se enmarca dentro del compromiso del Departamento de Vivienda y Agenda Urbana de ampliar la oferta de vivienda destinada a personas con escasa capacidad de renta, en colaboración con los ayuntamientos. El suelo cedido, que incluye el antiguo geriátrico ubicado en la finca 861 y otra finca anexa (finca 870), permitirá desarrollar nuevos alojamientos dotacionales que refuercen las políticas públicas de vivienda.

Para escenificar esta colaboración institucional, el Gobierno Vasco y el Ayuntamiento de Zumarraga celebrarán un acto de cesión el miércoles 23 de julio a las 11.30 horas en la antigua fábrica de Forjas, situada en la Calle Kalebarren 30, donde el Ejecutivo levantará otra promoción de vivienda protegida.

La actuación se alinea con la iniciativa cuarta del compromiso 18 del Programa de Gobierno de la XIII Legislatura (2024–2028), que persigue ayudar a las personas jóvenes a comenzar un nuevo proyecto de vida facilitando el acceso a la vivienda.

Otros acuerdos aprobados hoy

- **Amurrio:** Aprobación de la segunda modificación del acuerdo que regula una subvención directa al Ayuntamiento de Amurrio, destinada a actuaciones de regeneración urbana en el barrio de Goikolarra. Con un importe total de 3,4 millones de euros, se adaptan los plazos de ejecución hasta 2026 para facilitar la finalización de las obras de rehabilitación de 96 viviendas, la mejora del espacio público y la puesta en marcha de la oficina de gestión de proximidad.
- **Dima:** Declaración de urgencia de la ocupación de bienes y derechos afectados por el “Proyecto de mejora de la red de abastecimiento afectada por desprendimientos en el barrio Oba Goikoa”. El proyecto, impulsado por el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, permitirá garantizar la continuidad del suministro tras los daños sufridos por un desprendimiento en la ladera del monte Obako Atxa.

- Indemnizaciones por expropiación: Actualización de las compensaciones económicas a los miembros de los Jurados de Expropiación Forzosa de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que pasarán a percibir 100 euros por expediente resuelto, además de las indemnizaciones correspondientes por desplazamiento.

Salud

El Gobierno Vasco destina 5,8 millones de euros a proyectos de investigación y desarrollo en salud

- **El Departamento de Salud pone en marcha esta convocatoria de ayudas dirigida a proyectos que mejoren la asistencia sanitaria y la calidad de vida**

El Gobierno Vasco ha dado luz verde hoy a la convocatoria de ayudas a proyectos de investigación y desarrollo en salud correspondiente al año 2025, dotada con 5,8 millones euros. Así, el Departamento de Salud pone en marcha esta convocatoria de ayudas dirigida a proyectos que mejoren la asistencia sanitaria y la calidad de vida.

El Departamento de Salud impulsa las actividades de I+D+I como una de sus líneas estratégicas, impulsando la investigación para responder a necesidades del sistema sanitario y fomentar la cooperación dentro del propio sistema sanitario y también con otras entidades para generar y codesarrollar proyectos de I+D+I contribuyendo al beneficio de las personas.

Es por ello que las actuaciones que abarcan estas ayudas, susceptibles de ampliación, son las que tienen como finalidad contribuir a mejorar la salud de las personas y el desempeño del sistema sanitario, así como contribuir al desarrollo de proyectos de investigación e innovación que mejoren la asistencia sanitaria y la calidad de vida.

En concreto, se distinguen tres líneas de ayuda:

- **Promoción de la actividad investigadora sanitaria** a través de proyectos de I+D, con el objetivo de reforzar la capacidad del sistema sanitario y su contribución a la generación e integración de conocimiento necesario para dar mejor satisfacción a las demandas del sistema sanitario y de la sociedad.
- **Intensificación de la actividad investigadora sanitaria**, a través de proyectos o actividades de I+D realizadas por personal con actividad clínico-asistencial, con el objetivo de incrementar la dedicación a las actividades de I+D y reforzar la cultura de la investigación en el sistema sanitario de Euskadi.
- **Potenciación de la investigación en salud de carácter estratégico**, a través de proyectos de I+D surgidos a partir del liderazgo sanitario, de la cooperación y del aprovechamiento de las capacidades científico-tecnológicas del País Vasco, que permiten avanzar en la valorización y desarrollo de nuevos productos, procesos o servicios, en línea con la estrategia RIS3 Euskadi-PCTI 2030.

El fomento de la investigación y la innovación se sustenta en la Estrategia Marco de Investigación e Innovación en Salud 2022-2025 del Departamento de Salud, así como en el Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación 2030 (PCTI 2030) del Gobierno Vasco, basado en la estrategia de especialización inteligente RIS3 Euskadi en la que la salud personalizada es una de las tres áreas prioritarias.

En este marco, la convocatoria de ayudas destina, por un lado, 3.150.000 € para proyectos de la línea de Promoción de la actividad investigadora sanitaria y de Intensificación de la actividad investigadora sanitaria; y 2.650.000 € para proyectos de las líneas de Potenciación de la investigación en salud de carácter estratégico.

Las personas y equipos investigadores integrados en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación (RVCTI) podrán presentar su solicitud en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la publicación de la presente orden en el BOPV.

Movilidad Sostenible

El Gobierno Vasco subvencionará la instalación de tacógrafos inteligentes de segunda generación en el sector del transporte

El Consejo de Gobierno ha autorizado la orden de la consejera de Movilidad Sostenible, Susana García Chueca, por la que se convoca y regula un programa de ayudas para la adquisición e implantación de sistemas de nuevas tecnologías y seguridad en el sector del transporte público de mercancías y personas por carretera de Euskadi en el ejercicio 2025.

La implantación de sistemas de localización y gestión de flotas, seguridad y eficiencia tiene por objeto lograr una mayor seguridad, calidad, transparencia y agilidad en la prestación del servicio; lo que resulta positivo tanto para la empresa transportista como hacia a las personas usuarias.

En este 2025 el Departamento de Movilidad Sostenible ha incorporado como principal novedad subvencionable la instalación de tacógrafos inteligentes de segunda generación, en aras a incrementar la seguridad vial, mejorar las condiciones laborales de las conductoras y conductores, y proteger la competencia leal. Además, la normativa europea obliga a que todos los vehículos que operen en Estados miembros diferentes al de su matriculación cuenten con este sistema desde el pasado 1 de enero, o a actualizarlo a partir del 20 de agosto en el caso de los vehículos que cuenten con un tacógrafo inteligente de primera generación.

También serán objeto de ayudas los sistemas de localización y gestión de flotas; y elementos de seguridad como sistemas antitijera para camiones, de detección y autoextinguido de incendios, y tecnologías como las que permiten prevenir colisiones a través de sensores y radares. Asimismo, serán subvencionables los sistemas para optimizar la conducción eficiente y reducir el consumo de combustible como los controladores de velocidad de crucero.

Estas ayudas, que pertenecen a un programa iniciado en 2005 y cuya tramitación se ha simplificado, podrán solicitarse durante los próximos dos meses, están limitadas a 5.000 euros por categoría subvencionable -cada persona beneficiaria podrá optar a una o más entre las 4 disponibles- y cuentan con un presupuesto de 110.000 euros.

Movilidad Sostenible

El Gobierno Vasco autoriza la ampliación de la plantilla de Euskotren en 48 personas para la puesta en marcha de la pasante soterrada de San Sebastián

El Gobierno Vasco, a petición de la consejera de Movilidad Sostenible, Susana García Chueca, ha autorizado 48 dotaciones de personal laboral en Euskotren, necesarias para la puesta en servicio de la pasante soterrada del Topo en San Sebastián y la variante entre Altza y Galtzaraborda, por las que los trenes circularán en 2026, con mejores frecuencias y viajes en tren en Donostialdea sin transbordos en la capital.

Las y los profesionales pasarán a ser formados para familiarizarse con los sistemas ferroviarios de Euskotren y Euskal Trenbide Sarea (ETS), así como con el nuevo sistema de seguridad que la sociedad y el ente públicos van a empezar a implantar en el material móvil y la infraestructura, el European Rail Traffic Management System (ERTMS), que permite la interoperabilidad de los modelos de seguridad en la operación ferroviaria en los diferentes países europeos.

La pasante soterrada del Topo en San Sebastián contará con tres nuevas estaciones soterradas en la capital guipuzcoana con un trazado de doble vía, eliminando el fondo de saco existente en la actualidad en la céntrica estación de Amara, que obliga a que los trenes 'reboten' en dicho punto de la red, dificultando la operativa ferroviaria y obligando a las personas a realizar transbordos. Asimismo, la nueva infraestructura liberará suelos en superficie para que el Departamento de Vivienda pueda impulsar viviendas asequibles en el centro de la ciudad.

Por su parte, la variante soterrada en doble vía entre Altza y Galtzaraborda genera una nueva estación soterrada en Pasai Antxo y elimina el fondo de saco en Alza.

Ciencia, Universidades e Innovación

El Gobierno Vasco aprueba una partida de 19 M€ en ayudas predoctorales y postdoctorales

La carrera investigadora en Euskadi recibirá un importante impulso gracias a las nuevas convocatorias de ayudas aprobadas hoy por el Consejo de Gobierno destinadas a Programas de Formación de Personal Investigador no Doctor (predoc) y Doctor (postdoc) para el curso 2025-2026, con una dotación presupuestaria de 19 M€, lo que representa un incremento de casi un 14% con respecto al año pasado.

Unas ayudas que en definitiva contribuirán a mejorar las condiciones económicas y contractuales del personal beneficiario y que, en este sentido, refuerzan la apuesta decidida del Departamento de Ciencia, Universidades e Investigación por consolidar el talento científico en Euskadi.

Estas nuevas convocatorias, vigentes desde 1980, refuerzan el compromiso del Departamento para desarrollar una trayectoria profesional sólida, internacional y con vocación de retorno para su personal investigador.

El esfuerzo presupuestario para el año 2026 es notable, ascendiendo a un total de 19 M€, lo que representa un incremento del 13,66% respecto al presupuesto del año anterior, que ascendía a 16,8M €.

525 contratos para el personal investigador

Las convocatorias prevén la concesión de un total de 525 contratos para el personal investigador, desglosados en 414 predoctorales y 111 postdoctorales, que incluyen tanto nuevas incorporaciones como renovaciones.

En este sentido, destaca el crecimiento presupuestario del 35% en lo que respecta al programa postdoctoral, orientado al aumento de la duración de los contratos tras el retorno y las mejoras de las condiciones salariales.

Las nuevas bases de estas convocatorias establecen un incremento salarial del 2,5% para la totalidad del personal investigador. El refuerzo es aún mayor para el personal investigador que se encuentra en la fase inicial de su trayectoria predoctoral, con un aumento salarial del 4% durante el primer y segundo año, seguido de un 2,5% en el tercer y cuarto año de su contrato. El personal postdoctoral, por su parte, verá un incremento del 2,5% en todas las anualidades de su contrato.

Formación internacional

El Departamento ha puesto un especial énfasis en la formación internacional con un retorno a Euskadi garantizado. La convocatoria predoctoral se complementa con el programa de movilidad internacional *Egonlabur*, que financia estancias en el extranjero de 4 a 6 meses de duración, facilitando así la obtención de la mención internacional en la tesis doctoral. Además, la convocatoria postdoctoral amplía en un año tras el regreso de la estancia internacional, esto es de dos a tres años. Esta medida busca fortalecer

las posibilidades de consolidación profesional del personal investigador dentro del propio Sistema Vasco de Ciencia, fomentando sinergias con entidades como Ikerbasque, las universidades y los centros de investigación.

Por otra parte, como una novedad orientada a la eficiencia y la reducción de la carga administrativa, la nueva convocatoria incluye directamente la financiación de la movilidad internacional durante los dos primeros años del contrato postdoctoral. Esto elimina la necesidad de solicitar ayudas adicionales como *Ikermugi+*, simplificando considerablemente los procesos burocráticos.

Todas estas mejoras responden a la apuesta del Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación por una carrera investigadora vasca de calidad, con una fuerte dimensión internacional y un sólido arraigo local, fomentando así un ecosistema científico robusto, competitivo y, sobre todo, centrado en el desarrollo y bienestar de las personas.

Turismo, Comercio y Consumo

El Departamento de Turismo, Comercio y Consumo y el Servicio Público Vasco de Empleo – Lanbide suscriben un convenio de colaboración para el desarrollo del programa de formación Competencias Digitales para el sector turístico provenientes de los Fondos Next Generation EU

Se ha presentado en Consejo de Gobierno el convenio de colaboración entre el Departamento de Turismo, Comercio y Consumo y el Servicio Público Vasco de Empleo – Lanbide para el desarrollo del programa de formación Competencias Digitales para el sector turístico provenientes de los Fondos Next Generation.

La firma de este convenio busca desarrollar y ejecutar actuaciones formativas del programa de competencias digitales para el sector turístico de Euskadi a través de una convocatoria de subvenciones gestionada por Lanbide que se encargará del diseño de las acciones formativas y la impartición de estos cursos a través de centros colaboradores.

Este programa está dotado de un importe 1.982.342,08 € y los cursos formativos serán de al menos 150 horas. Está orientado a las personas trabajadoras del sector turístico en cualquiera de sus modalidades de alta en la Seguridad Social, personas jóvenes con contrato de formación o de prácticas en el sector turístico, Pymes del sector turístico y personas desempleadas en el sector turístico.

Para el seguimiento y control de la ejecución del presente convenio se constituirá una comisión de seguimiento donde participará el Departamento de Turismo, Comercio y Consumo y Lanbide.

La ejecución del programa se desarrollará hasta el 31 de mayo de 2026, con posibilidad de prórroga hasta el 30 de junio de 2026.

Turismo, Comercio y Consumo

Aprobada la subvención directa a la Asociación Bizkaidendak para el desarrollo del proyecto Berriro, herramienta de fidelización para el comercio

El Consejo de Gobierno ha aprobado la concesión por parte del Departamento de Turismo, Comercio y Consumo del Gobierno Vasco de una subvención directa por importe de 108.900 € a la Asociación Bizkaidendak, destinada al desarrollo del proyecto Berriro, herramienta de fidelización digital integral para el comercio local, de manera que pueda gestionar sus programas de fidelización de forma autónoma, adaptándolos a sus necesidades específicas y maximizando su impacto comercial.

En un entorno cada vez más competitivo, la retención de la clientela se ha convertido en un factor esencial para la sostenibilidad del comercio local. La fidelización permite no solamente aumentar la repetición de compra, sino que fortalece el vínculo entre el comercio local y su clientela, generando relaciones de confianza y mayor compromiso a largo plazo.

En ese sentido, este proyecto de reactivación del comercio local gestionado por la Asociación Bizkaidendak y denominado Berriro, es una respuesta a los múltiples retos que debe afrontar el comercio local, especialmente por lo que se refiere a grandes superficies y cadenas comerciales, que cuentan con avanzados programas de fidelización (tarjetas y apps personalizadas) y que dejan en desventaja competitiva al pequeño comercio.

Por lo que se refiere a la clientela, una vez que se den de alta en la aplicación, tendrá acceso a todos los comercios adheridos a la plataforma, sin necesidad de registrarse de manera individual en cada uno y podrá consultar sus puntos, recibir ofertas y acceder a promociones. Además, la herramienta estará totalmente integrada en el ecosistema Euskaldendak (Confederación de asociaciones de comerciantes, hosteleros, empresas de servicios de Euskadi a la que pertenece Bizkaidendak) y NIREs municipales, por lo que los comercios locales formarán parte de una red digital interconectada, lo que dará mayor visibilidad a sus programas de fidelización y promociones.

Los objetivos del proyecto BERRIRO son los siguientes:

- 1- Incrementar la fidelidad de la clientela: lograr que la clientela regrese de manera frecuente, incentivando la repetición de compras, mediante un sistema de recompensas atractivo y personalizado.
- 2- Empoderar al comercio local: competir con grandes marcas sin necesidad de realizar inversiones inaccesibles en tecnología. Cada comerciante podrá crear su propio programa de fidelización, adaptándolo a sus necesidades y al comportamiento de su clientela.

- 3- Mejorar la comunicación comerciante-clientela: los comerciantes podrán enviar notificaciones a su clientela, recordándole sus beneficios, puntos acumulados y promociones activas.
- 4- Optimizar recursos y facilitar procesos: permite a los comercios ahorrar tiempo y esfuerzo, mejorando la eficiencia en la gestión de clientela y promociones, mediante el registro de puntos y compras, la eliminación de tarjetas físicas y la simplificación del acceso a promociones y descuentos.

